

Ezinezko paketeak

M

undua kantari eta dantzariena izan beharko luke! (J. M. Coetzee)

Inspirazioa lortu eta ttakunari jarraitzeko

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Urkiza



Padron

nire komeriak ikusita, atzerriratzetxe txiki bat gaizki etorriko ez zitzaidala pentsatu nuen. Urri hasierako zubia aprobetxatu nuen nire adiskide Iker eta Maialenekin London aldera abiatzeko. “Nolatan?” bota zidan beste adiskide zorrotz batek: “Inperialismo, faxismo eta espainolismoaren jaietaz baliatzen?”. Erantzun neza-keen, oportunismoz, Trafalgargoa ospatzera nindoala benetan Londonera, baina kontraeraso txepela atera zitzaidan. “Eta hi? Zer? Zer egingo duk ba?”. Ordu laurdeneko erretolika jasan behar izan nuen, ez dakit nongo herri eskolen eta militantzia politikoaren beharraren inguruan. Arraioa, ez dago ezer okerragorik muturreko koherenteak baino. Tira, azkenean esplikatu nion ttakuna idaztera nindoala hara. Seguruenik ez zitzaion jai inperialista haren kontrako ekintza eraginkorrena iruditu, baina kolaborazionistatzat ez hartzeko lain izan zen behinik behin.

Ez nuen esku artean lan erraza gainera. Zorionez apur bat trufatzea bururatu baitzitzaidan aurreko ttakunean, gogoan hartu gabe euskaldun abertzale prestuak Euskal Herria Lau Haizeetarako DVDen bilduma egin, Karmele Jaio irakurri eta Ken Zazpi entzuten duela. Eta adin eta eskarmentu diferentziak gorabehera, Ur Apalategiren *Azken fandangoa Buenos Airesen* ipuineko Ander Galtzada bezala ikusten nuen nire burua. Ttakunaren ondorioz jipoituta, erridikulura eramana, *knockout*aren puntuan, nondik jo ez nekiera.

Soho aldean genbiltzan Maialen, Iker eta hirurok pub bat jendez lepo eta festa giro ederrean ikusi genuenean. Kantari bat zuzenean ari zen eta bezeroak erotu beharrean

koroak egiten pinta eskuan. Barrura egin genuen, hala-koak egunero bizi ez daitezkeela pentsatuta. Ikerrek komunera jo zuen sartu eta berehala, eta taberna erdian geratu ginen Maialen eta biok. Ez zitzaigun ohartzen sobera kostatu pub hark gutxi zuela ikusteko Donostiako alde zaharreko taberna

tradizionalekin. Han ez zegoen armairu; eta musika urrun zegoen Artze, Irigarai, Iriondo, Laboa, Lete eta enparauek behiala egindakorekin. Kantari trabestiak gidatzen zuen saltsa eta asaldura zen nagusi; desmasia, olgeta. Lagun batek beti esaten duenarekin akordatu nintzen: “Gay-ak zeinen ondo moldatzen diren, horratik!”. Iker komunetik itzultzen ari zela kantariak “*hey boy...*” bota zion eta keinu lizun antzeko bat egin. Ingurukoek ere batere disimulu gabe begiratzen zioten goitik behera guregana etortzen zen bitartean. Iristean erdi izututa kontatu zigun nola komuna libratuko esperoan zegoela gizon batek galtzak jaisteko keinua egin zion brometan. Orduan ohartu nintzen gizonkote bat ohikoa baino gehiago gerturatzen ari zitzaidala. Beste aldera begiratu eta beste bat ikusi nuen antzera. Ikerren eta neronen paketea edo poltsa (bai, poltsa; *zabaxki* dixit) ari ziren begira lotsagabeki. Dudarik gabe, Maialen zen han hoberen pasatzen ari zena, barreari ezin eutsirik. Bitartean, jendeak *I am what I am* kantatzeari ekin zion arnas betez. Darko Kovacevic bere azkeneko urteetan baino joko kanporago

genbiltzan Iker eta biok. Lokalean egiten bide zuen beroaren aitzakiaz lortu genuen Maialen konbentzitzea handik irteteko. Edo ihes egiteko, akaso. Benazko euskaldunen gisan, ukoan ondo zaildutakoak garelara erakutsi genuen beste behin ere. *I will survive* kantaren lehenengo konpasak hasten zirela atera ginen pubetik, zorionak larderiatura. ■



Orduan ohartu nintzen gizonkote bat ohikoa baino gehiago gerturatzen ari zitzaidala.

Beste aldera begiratu eta beste bat ikusi

nuen antzera. Ikerren eta neronen

poltsa ari ziren begira lotsagabeki'

